


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**DOKTORE BERRIAK DOKTOREGO ONDOKO
UPV/EHUKO PRESTAKUNTZA PROGRAMETAN
SARTU ARTE KONTRATATZEKO DEIALDIA
(DOKBERRI 2021-I)**

ATARIKOA

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikerketa gunerik handiena izanik, unibertsitateko tituludunak ikerketan prestatzeko egitekoa dauka. Hori dela eta, ikertzaileak prestatzeko bidea ematen duten doktore tesiak egitea sustatzen du.

Ikertzaileen prestakuntzan, hurrengo urratsa doktorego ondoko aldia da; aldi horretan, prestakuntza intentsiboa eta espezializatua egiten da doktorego tesia defendatu berri duten doktoreekin. Mugatutako denbora batean egiten da lan hori.

Bi aldi horien artean, eta ikerketa ibilbidearen berezko denbora zikloen ondorioz, normala da prestakuntza prozesua zaildu dezaketen denbora tarreak egotea; horrez gainera, baliabide publikoekin finantzatutako aurretiazko prestakuntza prozesuaren ondoriozko giza kapitala galtzea ere ekar dezakete.

Deialdi honen helburua, hain zuzen, doktoreak fidelizatzea da, doktorego tesiak defendatzen dituztenetik doktorego ondoko edo espezializazioko hurrengo prestakuntza aldira igarotzen diren bitartean.

Helburu honetarako 500.000 € bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako Bikaintasuneko Ikerketako Kontratu Programaren (2019-2022) barruan esleitutako finantzaketari lotutako aurrekontu kredituari dagozkionak. Kopuru hau gehitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izatean arabera. Zenbateko osoa deialdi honen babesean eta hura indarrean dagoen artean formalizatuko diren kontratuen kostua ordaintzeko erabiliko da.

Horretara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (aurrerantzean IGBB) aldeko txostena jaso ostean eta Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean IAE) erabaki du subentzioak emateko honako deialdi hau argitaratzea, ondoren zehaztuko diren baldintzetan.

1. OINARRIA. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da UPV/EHU prestakuntza bidean ari eta doktore titulua eskuratu duten ikertzaileei lan kontratu berri bat eskaintzea, beren ikerketa jarduerari jarraipena emateko. Ikerketa jarduerak egingo dituzte, hobekuntza maila eta espezializazio profesional handia lortzera bideratuak, esperientzia profesionala sendotu ahal izateko horrela.

2. OINARRIA. KONTRATUEN EZAUGARRIAK

2.1. Deialdi honetan 10 laguntzatarako deia egiten da, ikerkuntzaren arlo guztietara zabalik. Kontratuen kopurua gehitu ahal izango da eskarien kopurua ohikoa baino askoz handiagoa bada eta aurrekontu baliabideek hartara ematen badute. Kontratuak ikerketaren bost arloen artean (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak) izango duten banaketa proportzionala izango da arlo bakoitzean egindako eskarien kopuruarekiko, hondar handienaren banaketa sistema baliatuz. Beraz, lehiakideek eskari formularioan zehaztu beharko dute zein arlori dagokion bere eskaria. IGBBk, ebaluatzaileek arrazoitu eta proposatuta, eskaria birkokatu ahal izango du beste arlo zientifiko batean. Aldaketa honen berri emanen zaio eskatzaileari. Hala ere, ikerkuntza arlo batean eskari bakarra balego, eskaria, IGBBren iritziz, antzekotasun handieneko eskariei gehituko zaie, kontratuak banatzeko helburuari begira.

2.2. Deialdi honen bidez lortutako lan kontratua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 legearen (aurrerantzean ZTBL) 22. artikulua arautuko du.

2.3. Kontratututako pertsona UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, bertan lan egingo duelarik.

2.4. Sinatu beharreko kontratuaren iraunaldia 12 hilabetetako izanen da, berori formalizatuko deneko datatik hasita. Arduraldia osoa izango da eta bateraezina era bertsuko beste kontratu edo laguntzaren indarraldiarekin.

2.5. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

2.6. Ikerkuntzaren arloko errektoreordeak kontratuaren eteteko baimena eman ahal izango dio interesatuari sei hilabeteren gehieneko eperako, interesatuak horretarako eskari arrazoitua eginez gero. Hori eginez gero, etenaldi hori ezingo da berreskuratu; hau da, kontratua ezingo da luzatu, eta erabakian

ezarritako mugaeguna heltzean amaituko da. Kontratuaren etenaldian zehar baja emango da gizarte segurantzari. Etenaldiaren ondoren laguntza berriz jasotzeko izapideak egin ezean, bekari uko egin zaiola ulertuko da, eta automatikoki emango zaio baja.

2.7. Deialdi honen baitan kontratatutako ikertzaileek jasoko duten urteko ordainsari gordina izango da UPV/EHUk langile horientzat ezarritako duena.

3. OINARRIA. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko ezarritako epean:

1. Arloan eskumena duten ministerioen FPU eta FPI programetako edo UPV/EHUren nahiz Eusko Jaurlaritzaren edo, IGBBren iritziz, antzerako betebeharrak eta helburuak lituzketen bestelako erakunde finantzatzaileen deialdietako ikertzaileak prestatzeko laguntzak jasorik izatea (doktorego aurreko laguntzak), eta horiek aplikatzeko zentroa UPV/EHUren baitakoa izatea.
2. Doktorego tesia UPV/EHU defendatua izatea (edo UPV/EHUrekin tutorekidetza hitzarmen baten bidez) eta kalifikazio maximoa duen doktore titulua eskatuta izatea tesiari dagokion doktorego programan, baita nahitaez "Cum laude" aipamena izatea ere.
3. Gehienez ere, hiru hilabete igarota izatea prestakuntza bidean dauden ikertzaile moduan izandako kontratua amaitu ondoren eta doktorego tesia gordailuan utzi denetik. Nazioarteko tesien kasuan, ezarritako epea bost hilabetetako izango da. Abuztua baliorik gabea izango da aipatutako epeak zenbatzerakoan. Epe hauen ondorioetarako, ez da kontutan hartuko COVID-19ren ondoriozko alarma egoeraren denbora.
4. Tesia 2020ko uztailaren 1a baino beranduago defendatu badu edo, DOKBERRI 2020-II deialdira lehenengo aldiz aurkeztuta eta laguntzarik eman ez bazaio.
5. Eskatzaileak UPV/EHUren sail, institutu edo ikastegi berera loturik jarraitu ahal izateko baimena lortua behar du, doktorego tesia bertan egin izanik eta zuzendari zientifiko gisa jardun diren doktorego tesiko zuzendarien abala duela.
6. Bere doktorego tesiaren harira egindako bi ekarpen egiaztatzea, gutxienez, Ikerketa Jarduera Ebaluatze Batzorde Nazionalak (CNEAI) jakintza arlo bakoitzean dituen irizpideen arabera ekarpen baten baliokidea (Ebazpena, 2020ko urriaren 30ekoa, CNAIrena, ebaluazio eremu bakoitzeko irizpide espezifikoak ezartzeari buruzkoa.). Hautabidez, nazioarteko tesia eginik, nahikoa izango da ekarpen bakar batekin, aipatutako irizpideen arabera. Nolanahi ere, ekarpenetan agertu behar da eskatzaileak UPV/EHUarekiko duen filiazioa.

4. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

- 4.1. Eskubidea dute txertatzen diren adskripzio sail, institutu edo guneen laguntza eta sostengua jasotzeko, tokian tokiko baliabideen neurrian, beren ikasketak eta ikerketak egiteko.
- 4.2. Zeregin osagarriak egin ahal izango dituzte proposatutako ikerketa jarduerarekin erlazionatutako irakaskuntza lanetan (gehienez 80 ordu urtean), dagokion sailarekin hitzarmena egin ondoren eta UPV/EHUren zerbitzura dauden langileentzako bateraezintasunei buruzko indarreko arautegiari lotuta, irakasgai ardurarik izan edo ikasleen ebaluazio edo probarik egin ezin dutelarik.

5. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

- 5.1. Esleitutako sail, institutu edo ikergunean deialdi honetako 11.2 oinarrian ezarritako epean sartzea.
- 5.2. Esleitutako sail, institutu edo ikergunearen funtzionamendurako arauak bete beharko dituzte, bai arduraldiari dagokionez, bai eginkizunei dagokienez, bai eta ordutegi eta oportunitatei dagokienez ere.
- 5.3. Esleitutako sail, institutu edo ikergunean burutzea bere ikerketa lana.
- 5.4. Laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte ikerkuntzaren gestiorako zuzendaritzak (aurrerantzean IGZ) edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.
- 5.5. Irakasle eta ikertzaileen arloko errektoreordetzari jakinaraztea deialdi honen babesean sinatutako kontratuari uko egiten diotela, edo deialdiaren helburuak lortzea galarazten dieten jazoerak edo kalteak izan dituztela. Deialdi honek iraun bitartean jasotako beste laguntza edo ordainsarien berri ematea, espresuki.

5.6. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak iraun bitartean egindako lanak sinatzean Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearekiko atxikipenaren aipamena egin beharko da.

Era berean, eskerrak emateko atalean, ikertzaile doktoratu berriak kontratatzeko UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdia aipatu beharko da kontratuak iraun bitartean egindako ikerketa jardueretatik eratorritako argitalpenetan eta bestelako emaitzetan.

5.7. Beren jardueri buruzko informazio guztia eman beharko diete finantzak kontrolatu eta egiaztatzeke eskumena duten organoei, horiek hala eskatzen dietenean.

5.8. UPV/EHUren titulartasuna aitortzea, egindako ikerketa lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, modelo baliagarri eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren helburuko horien asmatzaile gisa egin beharreko aitoprenari betiere eutsiz.

5.9. Deialdi honen babesean kontratua formalizatzeak deialdiko arauak errespetatzea dakar, bai eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eta atxikitze sail eta institutuek, dauzkaten eskumenei jarraiki, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeke ezarritako arauak errespetatzea ere.

6. OINARRIA. ZUZENDARI ZIENTIFIKOAREN BETEBEHARRAK

6.1. Zuzendari zientifikoaren betebeharra izanen da ikertzaileari egindako kontratua zehaztutako helburuaren betetzeko baliatzen dela bermatzea, kontratua indarrean den bitartean arduradun gisa arituko direlarik. Era berean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzari jakinarazi beharko diote proposatutako ikerketa eragotziko ahal duen edozein baldintzaren berri.

6.2. Prestakuntza programaren garapen egokia zaindu beharko dute, eta ikerkuntzarekin nahiz ikerkuntza egiteko behar den prestakuntzarekin zerikusirik ez daukaten jarduerak eragotzi beharko dituzte.

6.3. Ikertzaileei behar duten laguntza eskaintzea eta beren lana behar bezala egiteko behar dituzten baliabideak, tresnak edo ekipamenduak eskura jartzea. Kontratututako ikertzaileen eskura jartzea lana behar bezala egiteko behar dituzten instalazioak eta baliabide materialak, eta adskripzio sail, institutu edo ikastegian antzeko kategoria duten langileen eskubide eta prestazioak dituztela bermatzea.

6.4. Inork kontratuari uko egiten badio, edo kontraturen bat eteten bada, edo beste gorabeheraren bat gertatzen bada, horren berri eman beharko diote IGZri, gehienez 10 lanegunen epean, aipatutako jazoerak gertatzen diren egunetik kontatzen hasita.

6.5. Kontratua jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IGZk edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.

7. OINARRIA. JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZIOAK

7.1. Deialdi honetarako proposatu diren jardueretan gizakirik, gizakien lagin biologikorik edo pertsonen datu pertsonalak erabiliko badira, honakoak bete beharko dituzte:

- Aitorpenetan jasotako printzipio etikoak errespetatzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Biltzarra, 1999; eta Tokio, 2004).
- Indarreko arautegia betetzea: 14/2007 Legea, Biomedikuntzako Ikerketei buruzkoa; 1716/2009 ED, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, pazientearen autonomiari buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.
- Kasuan kasuko Ikerketako Batzorde Etikoaren (AEIBE) aurreko eta nahitaezko aldeko txostena lortzea, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakiak, UPV/EHUko ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoan (EHAA, 32 zk., 2014-02-17koa), jasotzen duen bezala.

7.2. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan animaliekin esperimentatu nahi bada, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Ordeztu, murriztu eta fintzeko irizpideak errespetatu, nazioartean sustatu bezala.
- Animaliekiko ikerkuntzaren arloan (53/2013 ED) indarrean den arautegia bete.

- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB) aldeko txostena lortu, aldez aurretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).
- Agintari eskudunaren baimena agertu (foru diputazioen abeltzaintza saila).

7.3. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan agente biologikoak edo/eta genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Prebentzio, zuhertasun eta informazioaren printzipioak errespetatu, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionean.
- Arlo honetan indarrean den legeria bete: laneko arriskuen prebentziorako 31/1995 legea; langileen agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; langileen agente kantzerigenoen esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duen 9/2003 legea eta 178/2004 ED.
- Agente Biologikoekin eta Genetikoko Eraldatutako Organismoeekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB) aldeko txostena lortu, aldez aurretik eta nahitaez, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakian, UPV/EHUko ikerketako eta irakaskuntzako etika organoak arautzen dituen Araudiak jasotzen duen bezala (erabakia 2014-02-17ko EHAAn argitaratu zen, 32. zk.).

7.4. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jardueretan enbrioi zelula amekin edo haietatik eratorritako zelula lerroekin ikerketak egiteko beharrezkoa izango da betetzea 45/2003 legea eta hari dagokion 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioietatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, bai eta 09/2014 ED ere, uztailearen 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, lortzeko, ebaluatzeko, prozesatzeko, zaintzeko, gordetzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza laginekin egindako ikerketari buruzko arau hau ere kontuan izan behar da: 1716/2011 Errege Dekretua, azaroaren 18koa; honen bidez, alde batetik, biomedikuntzako ikerketa egiteko xedea duten biobankuak baimentzeko oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, bai eta biobanku horiek jarduteko oinarritzko eskakizunak ere; bestetik, giza lagin biologikoak tratatzeko bete behar diren oinarritzko eskakizunak ezartzen dira, eta, azkenik, Ikerketa Biomedikorako Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dira. (EBO, 290. zk., 2011ko abenduaren 2koa, ostirala).

7.5. Deialdi honen bidez gauzatu nahi diren jarduerak ezin izango dute gerrarik piztu, sustatu eta babestu, ez eta, zehatzago, armak egiteko edo merkaturatzeko enpresekin zuzenean edo zeharka lan egin ere.

8. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEA

8.1. **Aurkezteko tokia.** Eskakerak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidaliko zaizkio. UPV/EHUren Egoitza Elektronikoaren bidez aurkeztu ahal izango dira. UPV/EHUren Egoitza Elektronikoan dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez, UPV/EHUren erregistro bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua..

Erregistro elektronikoa erabiliz gero (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>), "Norako" atalean, lehenik eta behin "Ikerketaren arloko Errektoreordetza" adierazi behar da, eta, bigarrenik, "Ikerketa Deialdien Kudeaketa (U02000256)", eta "eskatzen du" atalean honako hau zehaztu behar da: "DOKBERRI" 2021-1.

Esteka honetan kontsultatu ahal izango dira UPV/EHUren erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia>

Posta bulegoak erabiliz gero, dokumentazioa gutun azal irekian aurkeztuko da, posta langileek eskabidearen lehenengo orria erregistra dezaten, eta posta ziurtatuz bidaliko da honako helbide honetara:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren arloko Errektoreordetza
Ikerketako Deialdien Atala
Errektoregoaren eraikina
Sarriena Auzoa, z/g
48940 Leioa (Bizkaia)

8.2. Beharrezko dokumentazioa:

- a. ***Eskaria egiteko formularioa (PDF eta Word formatuetan), IA Eren webgunean eskura daitekeen eredu arautua baliatuta, bertan dela:***
- Tesiaren zuzendariaren egiaztagiria, adskripzio saileko, institutuko edo ikastegiko zuzendariaren oniritziarekin, eta eskatzaileari doktorego tesia egin dueneko UPV/EHUko adskripzio sail, institutu edo ikastegiari lotuta jarraitzeko baimena ematen zaiola adierazita.
 - Doktorego tesiaren ondorioz egindako ekarpenen zerrenda osoa, espresuki adierazita ekarpen horietako bakoitzak tesiko lanarekin duen lotura. Erreferentzia okerrekin edo osatugabeekin edo kalitate zantzu okerrekin edo osatugabeekin aurkezten diren ekarpenak ez dira kontuan hartuko.
 - Kontratuaren aldian egin beharreko lanaren titulua eta lan plangintza, gehien dela, orrialde bateko luzeran.

Dokumentu hori eskaeraren osagaitzat eta gutxieneko edukitzat hartuko da, eta, beraz, eskatzaileak ezin izango du hura aldatu aurkeztu ondoren.

- b. ***NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia PDF formatuan.***
- c. ***Ikertzaile eskatzailearen curriculum PDF formatuan.*** Dokumentu hau curriculum vitae arautuaren (CVA) formatuaz aurkeztuko da. Eskatzaileek online editatu ahal izango dute <https://cvn.fecyt.es/editor/> estekari klik eginez. Aplikazio honen funtzionamendu honi buruzko kontsulta teknikoak cau.editor.cvn@fecyt.es helbidera bidali beharko dira.
- d. ***Doktorego tesiaren kopia PDFn.*** IAEk konpromisoa hartzen du lanaren ez zabaltzeko. Ebaluatzaileek izango dute bere berri, ez beste inork.
- e. ***Euskara jakite mailaren ziurtagiria PDFn.*** Eskariak aurkezteko azken eguna baino lehen lortutako B2, C1 eta C2 ziurtagiriak besterik ez da onartuko.

Eskabidea UPV/EHUko erregistro-bulegoetan edo posta-bulego batean paperean aurkeztuz gero, aipatutako dokumentazioa posta elektronikoz bidali beharko da pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Posta mezuan "gaia" atalean agertu beharko dira: "DOKBERRI 2021-I" eta eskatzailearen deiturak eta izena. Deialdian ezarritako dokumentazioa eransteko, behar adina mezua bidali ahal izango dira eta horietan guztietan "gaia" atalean adierazitako informazioa adierazi beharko da (kontuan izan UPV/EHUko mezuaren gehieneko edukiera 10 MB-takoa dela; beraz, bidalitako dokumentazioak gehiago hartzen badu, mezua ez da jasoko).

Atal honetan eskaturiko dokumentazioa besterik ez da balioetsiko atal honetan. Beraz, ez da dokumentazio gehiagorik aurkeztu beharrik izango, eskatzaileen merezimenduak egiaztatzeko.

8.3. **Aurkezteko epea.** Eskariak 2021eko maiatzaren 19ra arte (egun hori barne) aurkeztu ahalko dira.

9. OINARRIA. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Eskari bakoitzaren balioespenak honako irizpide hauek izango ditu oinarri:

1. Doktorego tesiaren ekarpenak CNEAren irizpideekin bat etorrira, zein bere jakintza arloari lotuak. Doktorego tesia bera edo argitalpen zerbitzuren batek egindako haren argitalpena ez da helburu honetan aintzat hartuko. Ekarpen bakoitzari, gehien dela, 10 puntu eman ahal izango zaizkio. Modu argian, agertu beharko da ekarpena CNEAren irizpideekin bat datorrela. Osterantzean, ekarpena ez da aintzat hartuko.

2. Nazioarteko doktorego tesia (10 puntu).
3. Lan plangintza (gehienez, 10 puntu).
4. Euskararen jakite maila eta euskarazko doktorego tesia (gehienez, 10 puntu).

Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztagiria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- Euskarazko doktorego tesia: 10 puntu.
- C2 mailako ziurtagiria: 8 puntu.
- B1 ziurtagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 ziurtagiria eta baliokideak: 3 puntu.
- Aipatutakoetatik beheragoko ziurtagiririk ez da balioetsiko.

Ziurtagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

10. OINARRIA. ESKARIEN TRAMITAZIOA ETA BALIOESPENA

10.1. Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, IGZk aurkeztutako eskariak aztertuko ditu. Azterketa hau amaitu eta gero, IAEk bere webgunean emango du argitara onartu diren eta bazterrean utzi diren eskarien behin-behineko zerrenda, balioespen fasera iraganen direnak.

10.2. Okerren zuzenketa.

Behin-behineko zerrenda argitaratzen denetik aurrera, eskatzaileek 10 egun baliodunen epea izango dute hutsegiteak zuzentzeko edo 8.1 atalean adierazitako nahitaezko dokumentuak aurkezteko.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa eta eskariak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAEk eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

Okerren zuzenketa aurkeztu beharko dira 8.1. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilita.

10.3. Ebaluaziorako onartu eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, bertan behera utzitzat hartuko dira epean eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskariak.

10.4. Ebaluazio fasea.

Bederatzigarren oinarrian deskribaturiko irizpideen arabera egin beharreko ebaluazioa IGBBk jakintza arlo bakoitzerako izendatutako epaimahaiek egingo dute, unean uneko jakintza arloari dagozkion IGBBko kideek osatuta, kasuan kasuko jakintza arloan izenik duten pertsonak laguntzaile dituztela.

Ebaluazio txostenak IGBBri bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, eta errektoreordeak erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

Azken puntuazioan jakintza arlo bereko zenbait eskatzailearen artean berdinketa gertatuz gero, IGBBk ordenatuko ditu doktorego tesia garatzen aurretako denborari jarraiki; honetara, kokapen hobe izango dute tesia denbora laburragoan egin dutenek, zenbatzen hasita doktoregorako matrikula egin zenetik eta doktorego tesia gordailuan utzi zen arte.

10.5. Behin-behineko ebazpena.

IAEk behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, bere webgunean argitaratuko dena, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa adieraziz. Eskariak behin-behineko eman edo ezetsi ahal izango dira. Ebazpenean ez da ageriko ordezkoko edo erreserbako lehiakiderik.

Jakintza arlo bakoitzari dagozkion kontratuen kopurua ere argitaratuko da, 2.1 oinarrian ezarritakoari jarraiki.

Interesdunek eskabidearen ebaluazioaren ondoriozko puntuazioen banakapena eskatu ahal izango dute posta elektronikoz, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera bidalita.

Interesdunek 10 egun baliodunen epea izango dute egoki leritzeketen alegazioak aurkezteko. Aipatu epean alegazio espresurik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

Eskaria behin-behinekotasunez emana izango dutenek kontratuaren onarpena edo ukoa adierazi beharko dute epe honen barruan. Uko egindako kontratuak hurrengo deialdian eskaini ahal izango dira.

10.6. Behin betiko erabakia.

Epea hau iraganik, IAEk aurkeztutako alegazioak helaraziko dizkio IGBBri, bertan azter daitezten eta, ondorioz, behin betiko ebazpena egiteko proposamena helaraziko dio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari.

Kontratazioa onartu zein ezesteko behin betiko erabakia IAEren webgunean argitaratuko da.

10.7. Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsioak.

Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilita:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, argitara eman eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsio hori jarriz gero, eta errekurtsio jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsio administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera zabalik dela.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsio ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa Bilboko administrazio auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabaki honen argitara eman eta biharamunetik aurrera kontaktzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

11. OINARRIA. KONTRATUA ADJUDIKATZEA.

11.1. Behin betiko erabakia argitara eman eta hamar lanegunetara, kontrataziorako hautatutakoek, kontratua lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna agertzeaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dio IAE-ri:

- a. Deialdi honen esleipendun gisa dituzten betekizunen onarpen dokumentua.
- b. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituen.
- c. Zinpeko adierazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluan adierazten den kontratua egiteko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- d. Lanean hasteko agiria.

Eskatutako agiriak epe barruan eta formaz aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

11.2. IGBB-n 11.1. oinarrian adierazitako dokumentazioa jaso eta hurrengo hileko lehenengo egunean, formalizatuko dira kontratuak eta lanean hasiko da sail, institutu edo ikerguneetan. Esleipenduna ez balitz agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzeko ekitaldira edo ez balitz hasiko lanean sail, institutu edo ikergunean, ulertuko da kontratuari uko egiten diola.

11.3. Eskariak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da, edo hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

11.4. Kontratua sinatu eta lanean hasteko 11.2 oinarrian adierazten den epea atzeratu ahal izango da, gehienez 6 hilabetera, esleipendunak behar bezala arrazoitzen badu eta zuzendariak ontzat hartzen badu eskaria.

12. OINARRIA. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

12.1. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratua ez da bateragarria izango beste batekin, honako hauekin izan ezik: Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeko 9. artikuluan aipatzen diren jarduerak, eta Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoko 83. artikuluan aipatzen diren erakunde edo pertsonekin egindako lankidetzak kontratuak.

12.2. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak ez dakar kontratu harreman egonkorrik esleipendunaren eta UPV/EHUren artean; harreman hori kontratuaren indarraldia bukatzearekin batera amaituko da.

13. OINARRIA. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA

Deialdi honen bidez kontratatutako langileen ukoen, bajen eta gainerako gorabeheren berri tesi zuzendariak edota kontratatutako langileak berak eman behar dio, hori eragin duena gertatu eta hurrengo 10 egun baliiodunen barruan, UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen arloko Errektoreordetzari; jakinarazpenari gehitu beharko dizkio kasu bakoitzean beharrezkoak izango diren justifikagiriak.

14. OINARRIA. JARRAIPENA

14.1. Deialdi honekin bat etorrita kontratatutako pertsonalak egindako lanaren jarraipen zientifiko eta teknikoa IGZri dagokio, horretarako jarraitu beharreko prozedurak ezarriko dituelarik. Hortaz, egoki leritzekeen organoak, batzordeak eta pertsonal aditua izendatu ahal izango ditu eta egoki leritzokeen informazio osagarria eskatu, kontratua behar bezala burutu den egiaztatze beharko liratekeen jarraipen eta egiaztatze egitateak buru ditzaten.

14.2. Deialdi honen babesean kontratatutako pertsonalak kontratuaren baliatzeko beharko liratekeen txosten, inprimaki eta gainerako dokumentu guztiak bete beharko ditu; hain zuzen ere, IGZk edo/eta deialdi honen kudeaketan laguntzen duten gainerako sailek edo zerbitzuek eskaturikoak.

Zuzendari zientifikoak ontzat eman behako ditu txostenok eta, beraiekin batera, egindako lanaren deskribapen zehatza aurkeztu behar da eta zer helburu lortu diren adierazi.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Ikerketaren arloko errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabeteko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraituta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioan, 2021eko apirilaren 19an.

Inmaculada Arostegui Madariaga
Ikerketaren Arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación